(Dokumentu honen zatia: OPERAZIOAK ESKATZEKO ETA HAUTATZEKO EREDUAK POPV14-20an, Erdiko Organismoaren Funtzioen eta Prozeduren Eskuliburua, Gipuzkoako Foru Aldundia)

EGEF baldintzekin betetze aldera, entitate onuradun bakoitzari Laguntzen Baldintzak Ezartzen dituen Dokumentua emateari dagokionez, erakunde Kudeatzaileak, onuradunen aldeko laguntzak esleitzeko ebazpenetan, hauek sartu beharko ditu:

EGEF kofinantzaziotik datozen betekizunak:

Eskualdeen Garapeneko Europako Funtsak lagunduta finantzatzen dira diru-laguntza hauek (EGEFren ekarpena diruz lagundutako zenbateko osoaren % 50ekoa izango da). Horregatik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko (EB) 1303/2013 Araudian ezarritakoaren mende daude laguntzak, eta honako hauek dira EGEFren laguntzarekin finantzatutako proiektuek bete beharreko baldintzak:

- *Kontrol, erantzukizun, zehapen-araubide eta ez-betetzeei dagokienez, entitate onuradunak Estatuko eta EBko legeria bete behar ditu.*
- *Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF Programa Eragilearen esparruan kofinantzatuko dira laguntza hauek, eta horren berri eman beharko da jendaurrean. Alde horretatik, baldin eta diruz lagundutako jarduerei buruzko informazio eta komunikazio ekintzak egiten badira, EGEF bidezko kofinantzaketa komunitarioa aipatu beharko da hedapenerako erabilitako material edo euskarrietan, Batasunaren ikurra eta Europar Batasunaren erreferentzia txertatuta. Operazioa garatzen ari den bitartean, haren deskribapen labur bat egin beharko da bere webgunean, Batasunaren diru laguntza nabarmenduz bertan, eta gutxienez proiektuari buruzko informazio kartel bat –A3ko gutxieneko tamainan– jarriko da, non Batasunaren diru laguntza aipatuko baita jendeak ikusteko moduan.*
- *Diru-laguntzei buruzko arau nazionalak eta erkidegokoak bete beharra dago.*
- *Laguntzak arautzeko oinarrietan adierazten da zer metodo erabili behar den eragiketaren kostuak zehazteko eta zein diren diru-laguntzak ordaintzeko baldintzak.*
- *Diruz lagundutako jarduketari buruzko informazioa eman behar du onuradunak, hala eskatzen zaionean eta eskatzen zaion formatuan.*
- *Diruz lagundutako jarduketei buruzko kontabilitate bereizi bat izan beharko du, edo, bestela, erraz identifikatzeko moduko kodeak dituen kontabilitate bat.*
- *Eragiketari buruzko finantza- eta administrazio-informazioa eta haren garapenaren jarraipenari buruzkoa artxibatu beharko du, hiru urteko epean, eragiketaren gastuak jasota dauden kontuak aurkeztu ondoko abenduaren 31tik hasita. Informazio hori, gainera, agintari eskudunen esku jarri beharko du, hala eskatzen diotenean.*
- *Eragiketari lotutako produktibitate-adierazleetan nolako maila lortu den jakinarazi beharko du, bai eta gastuak justifikatu ere.*
- *EGEF laguntza onartzeak berekin dakar onartzea batera finantzatutako eragiketen zerrenda publikoan azaltzea.*
- *Laguntza eman beharko du iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionalak aplikatzen bere kudeaketa-eremuan, eta ez du izango finantzazio bikoitzik, dokumentu faltsurik eta abar. Halaber, informazioa eman behar du, izan litezkeen arriskuak antzemateko. Neurri hauek guztiek berekin ekar dezakete iruzur-arriskuen aurkako prozedurak berrikustea eta, iruzur-arrisku handia dagoela ebaluatuz gero, laguntza-eskaerari ezezko ematea edo jasotako laguntza kentzea.*

Kokapena Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF Programa Eragilean

- *Helburu tematikoa: OT3. - Enpresa Txiki eta Ertainen lehiakortasuna hobetzea*
- *Inbertsio lehentasuna: PI.3.a - Espiritu enpresariala sustatzea, bereziki ideia berrien aprobetxamendu ekonomikoa erraztuz eta enpresa berrien sorrera sustatuz, baina enpresa mintegien bidez*
- *Helburu espezifikoa: OE.3.a.2 – Enpresa eta enpresa mintegi berriak sortzea, bereziki finantzaziorako sarbidea eta laguntza aurreratuko zerbitzuak hobetuz.*
- *Esku-hartze kategoria: 067 – Enpresa Txiki eta Ertainen garapena, ekintzailetasunari laguntzea eta inkubazioa (enpresa hasiberriei eta enpresa deribatuei laguntzea barne)*

Ibilbide finantzarioa duen erakundea: Gipuzkoako Foru Aldundia